

## Harro ez da Europride, baikortasunez



IMANOL ALVAREZ  
IRAKASLE OHIA

**T**estu hau idazterakoan, Euskal Herriko LGBTI+ mugimendu ia osoak deituriko manifestazio batek zeharkatu berri ditu Bilboko kaleak. Leku atipiko batean izan da amaiera-ekitaldia, Kasilda Parkean hain zuzen, aurrez aurre dauden jauregi-hotelean egon baitira bilduta aste-buruon EPOA (Europride enpresa), Udala, Aldundia eta hiriko elkarte bat. Euskal medioetan, nahiko zabal hitz egin da protesta horren zergatiaz (salbuespen *dei[a]*garri batekin), alegia nola borrokaren merkantilizazioaren kontra gauden, nola askatasunak eta kapitalismoa txarto uztartzen diren... Beraz, ez naiz horretan luzatuko, baizik eta gauzak lasai eta kanpotik bezala –posible dudan heinean– begiratzen ahalagindu, ikusmira positiboz beti ere.

LGBTI+ mugimendua 1969ko hasiera hartan iraultzailea zen, duda barik, Euskal Herrian zazpi bat urte geroago sortu genuena bezalaxe. Iraultzaileak ginen bai. Eta bagara. Gizartea irauli nahi genuen. Eta nahi dugu. *Gizarte berdintzaileagoa eta justuagoa* aldarrikatzen genuen jada 1977an; *gizarte sexista, matxista, heteropatriarkal, klasista eta kapitalistari alternatiba* bila genbiltzan. Eta bagabiltza. Apurka-apurka, aldiz, munduan barna, mugimenduaren zati bat hasi zen erreformista bihurtzen eskubide batzuen aitortza

erdietsi ahala. Gurean eutsi diogu jatorrizko jiteari, erreformismoaren iritsiera atzeraraziz edota haren eragina motelduz. Baina heldu egin da bete-betea, orain ez asko. Guretako gehienontzat samina datekeen errealitate horrek, berriz, badu alderdi onik. Itxaropentsu sentiarazten nauten zeinuetako batzuk hauek:

1. Esan berri bezala, inguruan eztabaida piztea lortu dugu: aspaldian, ez da horrenbeste hitz egin gaiaz.

2. Mobilizazioetan gazte andana ikusten da. Kezkaz, urtetan ez dut belaunaldi erreleborik sumatu. Patxadaz har nezake orain erretiroa, lanean jarraituko duenik badagoela ziurtatuta ikusten baitut.

3. Ilusioz, mimoz eta maitasunez sortu eta lau hamarkada luzez hazi dugun EHGAM taldea gaixo, makal dabil. Harro sortarazi dugu. Esan liteke lasai asko Harro dela egun garai batean EHGAM izan zena.

4. Sistemak fagozitu nahi du LGBTI+ mugimendua, ezagutzen duten modurik hoberena baita gustukoa ez zaien oro neutralizatzen saiatzeko. Sistemak soilik egiten du hori olatua arriskutsu ikusten duenean. Lagunartean txiki hasi genuen hura erraldoi bihurtu da, sistema bera kezkarazi arte.

Eginkizuna egina. Lasai eta pozik nago, alajaina! ●

## LED bonbillak ala iraultza?



ITZIAR BARDAJI  
GOIKOETXEA  
IRAKASLEA

**A**zken asteotan asko hitz egin da klima aldaketaren inguruan. Politikariak presionatzeko eta kontzientziak esnatzeko bideak bilatzen dira, hala nola, modu berritzailean, pasa den irailaren 27ko greba.

Galdera: bakarkako keinu ugariaren baturak eta intentzio oneko (demagun) politikariek har ditzaketen erabakiek eragin al dezakete aldaketa esanguratsu bat?

Sistema ekonomikoaren egonkortasunaren baldintza hazkuntza tasa positiboa da. Hau da, urtero, aurreko urtean baino gehiago produzitzea. Baserriko bizimodua desagertzen ari da, herriak

hustu eta hiriak beteaz. Merkatu globalizatuaren lehiakortasunak etekin eta kostuen legeak soilik ditu ulertzen. Eta produkzio sistema ero hau sistema finantzarioaren erabat menpekoa da. Gizartea osatzen dugun inurritxoek hau guztia sostengatzen dugu. Geure bizitzetako jardun nagusitzat, sistema ekonomikoak guretzat erreserbatu duen eginkizuna, soldatapekoa edo doakoa, betetzen dugu.

Jendartearen hautuaren eta sistema-egituraren artean lotura jarraitua ala haustura saihetsezina al da? Jasan-garritasuna urruti al dago? Ala egungo mundua ulertzeko markotik kanpo? ●